

Larranbilo saltsa

SAMBUCUS EBULUS omen da zihaurria edo zinaurria, Koldo Mitxelena-ren arabera. Telesforo Aranzadik Ataungo Aia aldean “zinurri” izena beste landare bat izendatzeko erabiltzen zela jaso zuen, *Phyllirea media* alegia. Hori azaltzeko 1924an idatzi zuen artikuluari, Busturialdean landare horri “gartxu” deitzen zaiola dio, baina baita, hantxe bertan, Kirikiñok Ziñurri toponimoa jaso zuela ere. Zenbat horrelako! Zirkulu-saltsa galanta dugu landareen izenen sukaldean. Eta geu, saltsa-miatzai-leak.

Izenak joan eta izenak etorri. Gure etxean, *Matricaria chamomilla* landareari “kamamila” esaten diogu, aitona izan ezik; hark, “larranbiloa”. Bere ama Joxepa zenak hala deitzen omen zion. Ados, larranbiloaz ari garenean amari kasu egitea komeni da.

Matricaria Erdi Arotik datorren izena da, latinezko *matrix* eta *cara* hitzetatik dator. Garai batean emakumearen hilekoaren minak arintzeko eta umetokia sendatzeko erabiltzen zeneko arrasto argia. *Chamomilla*, berriz, grekozko *cha-*



JOAQUIM ALVES GASPAR-CC BY SA

***Matricaria recutita* eta beste hamaika izen, zientifiko zein bestelako, ditu landare honek.**

mai eta *mêlon* hitzetatik; lurpeko sagarra, alegia, darion usain gozotari gorazarre. Sendabelar ezagunetakoa da. Txoko honetan inondik ere kabitzen ez denez, zer sendatzen duen jakin nahi eta galdezka edo irakurtzen hasiz gero, prestatu txunditzeko.

Ni izenen dantzak txunditzen nau, flipa egiten nau. Euskaldunok landare berari deitzeko izen bat baino gehiago izatea ulergarria da; hizkuntza guztietan gertatzen den neurrian, gaitz erdi. Aberastasuna ere bada, ordea, zer arrai! Ulertezina zera da: izen kaka-nahaste-borraste guztiak argitzeko asmoz ematen zaio landare espezie eta aldaera bakoitzari izen zientifiko jakin bat. Gutako bakoitzaren ama-hizkuntza edo ama edo hizkuntza dena delakoa izanagatik, izen horrekin nonahi ulertu eta moldatzeko gai izango zara.

Bada, nahaspilaren gaitza ez du sendatzen larranbiloak. *Matricaria chamomilla* dela esan dizudana *Matricaria recutita* dela esan ahal dizute, edo *Chamomilla recutita*, *Chamomilla chamomilla*, *Matricaria suaveolens*, *Chamomilla officinalis*, *Chrysanthemum chamomilla*, *Chamomilla deflexa*, *Chamomilla patens*, *Chamomilla courrantiana* edo *Chamaemelum vulgare*. Nik dakidala, 22 izen ere erabiltzen dira saltsa hau osatzeko. Hemen ez dira kabitzen. ■



152.205.000

Tomate kilo horiek jaso ziren iaz Nafarroa Garaian. Udan sartzen garenero abiatzen da tomatearen bidegabekeria. Espainian badago indize bat, IPOD izenekoa, nekazaritza produktuen prezioen gorabeherak jasotzen dituen; Hego Euskal Herriko prezioak hor azaltzen dituzte. Aurtengo ekaineko indizea ikaragarria izan da. Maiatzean nekazariari tomate kiloko 0,43 euro eman bazioten, ekainean 0,19. Dendetan, batez besteko salmenta prezioa 2,06 eurotik 1,98ra igaro da. Kontuak atera: ekainean baserritarrak salmenta prezioaren %9,6 besterik ez zuen jaso. Beste %90,4 eskuz esku dabil. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:
 - Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
 - Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 · lorelan@euskalnet.net